

Bixintxoak



eztarar

Egun, igande guzietz bezala, gure etxean bazkaldu du Aitatxik.

Kafea edan ondoren erran du :

– Nor heldu da enekin bestara ?

– Ni! Ni! – Maikak.

5 – Ni, Aitatxi, ni! – Uxuek ere.

Aitatxik aterki beltza besapean hartu du, Maika esku batetik, Uxue bestetik eta hiruak badoaz.

– Sari arte! Gu geroxeago etorriko gara, Xalbat irartzartuko delarik – diote aitamek.

10 Ziburuko portuan, lerro-lerro ageri dira kolore guzietako josta-etxolak, argi dirdirak eta musikak alaiturik. Bixintxo bestak hasiak dira.

– Zer egin nahi duzue? – galdetzen du Aitatxik.

– Nik auto kaskatzaileetan ibili nahi nuke.

15 – Nik ere bai. Heldu zira, Aitatxi ?

– Ez, ez! Ni tresna horietan ez naiteke sar!

Txartelak hartu ditu Aitatxik.

Txartela: billetea.

Maika eta Uxuek auto gorria hartzen dute eta itzulika hasten dira. Maikak bolanta ibiltzen du eta Uxuek soinua jotzen: tut! tut! tut! Baina nor ageri da hortxe? Tomas, auto urdin batean! Anaiarekin ari da, itzulika, itzulika. Uxue eta Maika gibeletik heldu zaizkie eta krask! Tomas eta anaia irriz hasten dira. Orain Tomasek Maikaren auto gorria kaskatu nahi du. Kasu! Kasu! Hurbiltzen ari da!

harila: xiri baten puntan emana eta xurgatuz jaten den goxoki borobila.

bedera: bakoitzarentzat bat.

Baina orduan tirintak jotzen du eta autoak gelditzen dira. Haur guziak jausten dira. Maika, Uxue, Tomas eta haren anaia loria-tuak dira. Puska bat xoratuak daude...

– Goazen, goxokiak erosiko ditut denentzat – dio Aitatzik.

Azukrezko **harila** arrosa **bedera** eskaintzen die.

– Mmm! Zoin goxoa den!

Orain aitamak ere hor dira. Niñi ttipia ere bestara etorri da. Aitatzik zilar koloreko baloia erosi dio eta karrosari lotu. Xalbat irriz ari da. Denak alegera dira. Bixintxoak ongi iragan dituzte.

Denise Salaberria

① IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Bixintxoak Ziburun ospatzen dira. Zer dira?
- Non aurkitzen dira josta-etxolak?
- Zertan ari dira Maika eta Uxue?
- Zenbat haurride ditu Maikak?
- Zer egiten du Tomasek?
- Zergatik aitamak berant etorri dira?
- Bixintxoak ongi iragan direla zertarik ageri da?

② HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

- ▶ Kontrako hitzak atzeman eta lerro guziak berridatz.

musika alaia	<i>musika</i>
bestak hasi dira	<i>bestak</i>
niñi ttipia iratzartu delarik	<i>niñi ttipia</i>
haurrak jausten dira
baloi kolore argia